

0·15 Ezagutu Metro Bilbaoko STEM lanbideak

01

Kurtsua/Maila

3. DBH
4. DBH

Datak

2027 Otsaila

Hizkuntza

Euskara, Gaztelania

Irismen geografikoa

Bizkaia

Jarduera ematen duen erakundea

Metro Bilbao

Garraioaren sektorean bokazio zientifiko-teknologikoak sustatzeko eta genero-estereotipoak apurtzeko helburuarekin, Metro Bilbaok orientazio profesionaleko esperientzia bat eskaintzen du bere arlo teknikoetan oinarrituta. DBHko 3. eta 4. mailako ikasleek tailerra bisitatuko dute eta jarduera bat egingo dute Arizen (Basauri) dauden instalazioetako ikasgeletako batean.

Jarduera hau STEM arloko emakume profesionalek gidatuko dute, eta honako helburu hauek izango ditu: lanbide mota horiekiko interesa sustatzea, emakume erreferenteak ikusaraztea eta ingurune teknologiko eta zientifikoetan jasagarritasunaren garrantziaz kontzientziaztea.

STEM Deskribatzaileak

STEM 4

STEM 5

STEM 6

Baliabideak

Baliabide materialak

Ikasgelako aurretiazko lanerako: Metro Bilbaok ikasgelarako hausnarketa-gida emango du.

Instalazioetara bisita eta ikasgelako jarduera: instalazio ekipatuez gain, erakundeak profesionalekin topaketa egiteko gela bat jarriko du ikastetxearen eskura, ordenagailuarekin eta ikus-entzunezko materialak proiektatzeko sistemarekin.

Baliabide ekonomikoak

Arizko (Basauri) tailerretara joateko desplazamendua ikastetxeak kudeatu eta ordaindu beharko du.

Informazio gehiago

metrobilbao.eus/

0·15 Ezagutu Metro Bilbaoko STEM lanbideak

02

GARAPENA

Prestaketa fasea

Irakaslea-profesionala: Metro Bilbaok topaketan parte hartuko duten ingeniari eta espezialisten profilei buruzko informazioa emango du, aldeaz aurretik testuingurua lantzeko.

Gutxi gorabeherako dedikazioa:
ordubete

Aurretiko lana ikasgelan: Metro Bilbaok gomendatzen du, Teknologia, Digitalizazioa edo Kultura Zientifikoa bezalako arloetako irakasleen gidaritzapean, eztabaida-saio bat egitea (jardueraren aurretiko hausnarketa gisa) industria-sektoreko genero-estereotipoei buruz. Honako galdera gako hauek planteatuko dira:

- Nola irudikatzen duzue trenak mantentzen edo gidatzen lan egiten duen pertsona bat?
- Nola lagundu dezakete zientziak eta teknologiak planeta zaintzen?

Gainera, ikasleek STEAM arloko emakume erreferente historiko eta gaur egungoak ikertuko dituzte, ondoren Metro Bilbaoko profesionalei

egingo zaien galdera-txanda kritikoa prestatzeko.

Gutxi gorabeherako dedikazioa:
ordubete

Garatze fasea

Jarduera osoa Arizen (Basauri) dagoen enpresaren instalazioetan garatzen da, eta bi bloke sekuentzial ditu:

Tailerreko bisita (30 minutu)

- Burdinbide-mantentze lanen bi-hotzera egindako ibilbide gidatua. Ikasleek bertatik bertara ikusiko dute teknologiararen aplikazioa, eta emakumeak ingeniaritza, mantentze-lan eta gidaritzako arloak (makinistak) lideratzen..

Ikasgelako jarduera (45 minutu – 1 ordu)

- Saio dinamikoa Metro Bilbaoko gela ekipatuetako batean, hiru emakume profesionalekin. Tonu profesional baina hurbilean, euren eguneroko lana, ibilbide akademikoa eta esperientzia azalduko dituzte. Amaieran, solasaldi irekia egingo da ikasleen zalantzak argitzeko. Nabarmendu behar da, erakundearen konpromisoarekin bat etorritik, profesionalen diskurtsoan zehar modu natural eta zeharkakoan

aipatuko dela nola haien lanak jasangarritasunari laguntzen dion (besteak beste, 4. eta 5. GJHak).

Ikasgelan integrazio fasea

Azkenik, ikasleek esperientzia beren ikasgelako proiektuan edo ikaskuntza-egoeran aplikatuko dute. Jardueraren amaieran balorazio bat egingo da teknologiak gizartean duen eraginari eta STEM bokazioak aukeratzekoan berdintasunak duen garrantziari buruz.

Gutxi gorabeherako dedikazioa:
ordubete